

## Kontalaritza eskola. Ahozko narrazio ikuskizunak.



### A Aretoa

Kontalaritza Eskolaren proiektua ildo horretan lan egiteko sortu zen. “Kontalaritza istorioak kontatzeko, komunikatzeko eta adierazteko artea da. Ofizio bat da, egitura, arau, tresna eta lengoia propioak dituen, eta horrek prestakuntza espezifiko bat eskatzen du” azaldu dute. **Helburu** horiek aintzat hartuta, eskolak, lehenik eta behin, narratzaileak prestatuko ditu. Beste arte eszeniko batzuekin bat datozen jakintzagaiak landuko dira, hala nola espazio eszenikoaren erabilera eta gorputzaren ezagutza; norberaren ahots narratiboa eta estiloa aurkitzea; edo adierazpen-teknikak ezagutzea: ebokazioa, entzutea, komunikazioa eta transmisioa, besteak beste.

Gainera, **lanbidearen berezko gaia** ondo ezagutu behar da: arketipoak, mitoak, kondairak, ipuinak, literatura: ipuinen esanahi sinbolikoa, egiturak eta abar. Behin ezagutza eta entrenamendua eskuratuta, kontakizunaren sorkuntza bera landuko da, ikuskizun bat eszenaratzeko beharrezkoa den dramaturgia eraikitzeraino.

## Kontaktua

Eskolak Garaion Sorringunea sorkuntza zentroan emango du prestakuntza eta lehenengo ikasturtea azaroan hasiko da. Izena eman eta informazio gehiago eska daiteke [arabazanarabazan@gmail.com](mailto:arabazanarabazan@gmail.com) helbidean.

## Dokumentazioa

- [2025-26 kartela](#)256.31 KB